

## ASOCIACION DE MADRES Y PADRES – GURASOEN ELKARTEA

Cervantes Ikastetxea

Lersundi, 10 – 48009 Bilbao

Tf – fax: 944240330

e-mail: [igecervantes@yahoo.es](mailto:igecervantes@yahoo.es)



### INSKRIPZIO ARAUAK ETA EKINTZEN ERREGLAMENTAZIOA

1. Eskola kanpoko ekintzetan parte hartzea borondatezkoa da eta beharrezkoa da IGEko bazkidea izatea. Edozein ekintzetan parte hartzeko **DERRIGORREZKOA da aurreko ikasturteko IGEk antolaturiko ekintzetan zorrik ez izatea.**
2. Ekintza hauetan parte ahal izateko beharrezkoa da ikasleak **ESKOLA ASEGURUA ordainduta edukitzea.**
3. **Inskripzio kuota ordaindu beharko da (10 EUR ekintza bakoitzeko).** Honela egingo ez balitz, inskripzioa ez da haintzat hartua izango. Jende faltagatik ekintzak aurrera egingo ez balu ordaindutako dirua itzulia izango da. Edozein modutan, **10 EUR hauek 3. Hiruhileko kuotatik deskontatuak izango dira**
4. **Inskripzioak emandako ordenean gordeko dira** epea bukatu ala kupoa bete arte. Gainontzeko inskripzioak ordezeko lista batera pasatuko dira, emandako orden berberean hauek ere.
5. Behin baino gehiagotan zorrak utzi dituzten pertsonak “arriskutsu” bezala izendatuak izango dira, zuzen zuzenean lista azkenak izatera pasatuko direlarik.
6. **Ekintzen ordainketa bankuaren bitartez egingo da. Itzuliak diren ordainagiri haientzat familiari ohar bat bidaliko zaio ordaindu dezan, eta EUR 1 gehiago ordaindu beharko da kudeaketa gastuei aurre egiteko.** Ordaindu ezean ekintzetan parte hartzeko aukera galduko da eta ekintzan erabilitako denbora ordaindu beharko da. Orduan ere ez bada ordaintzen, beste edozein ekintzetan parte hartzeko aukera galduko da eta IGEko bazkidea izatekotan baita bertako laguntzak jasotzeko aukera ere.
7. Edozein ekintzatan **apuntatu ala ezabatu** ahal izango da idatziz esaten denean eta baita ere **hiruhilekoa bukatu aurretik esaten bada (ABENDUAK eta MARTXOAK)**. Bestela, ez da ezabatzeko aukerarik emango, hileroko ordainketa duten ihardueratan izan ezik.
8. Eskola kanpoko ekintzak eskarian adierazitako hizkuntza eredian izango dira. Ekintza elebidunak bi hizkuntzatan emango dira, A ereduok uker dezaten eta aldi berean euskera ikasteko aukera izan dezaten.
9. Ekintzetako irakasleekin bilerarik nahi izatekotan aldeztu aurretik eskatu beharko da. ([cervanteseskolaextraescolares@gmail.com](mailto:cervanteseskolaextraescolares@gmail.com))
10. **Disziplina arazorik izatekotan,** ekintzako irakasleak une bakoitzean beharrezkoak ikusten dituen neurriak hartu ahal izango ditu, gainontzeko ikasleek kalterik jasan ez ditzaten. Arazoak iraungo balu, aztertua izango da guraso, ekintza irakasle eta IGEko ekintza arduradunaren partetik.
11. Arau orokor bezala, **greba egunetan ez da Eskola kanpoko iharduerarik** egongo. Ihardueraren bat egongo balitz, aldeztu aurretik familioi jakin araziko zaizue.
12. Ekintzak **URRIAN** hasi eta **MAIATZEAN** bukatuko dira.

### IHARDUERERIKO KONPROMEZUA

1. Iharduera talde bakoitza aurrera ateratzea posible izan dadin eta lan talde bakoitzean jorratutako lana egokia izate aldera, iharduera hauek hasi eta emaitzen dituzten haurrak berdinak izan behar dira. Horretarako zuen KONPROMEZUA behar dugu.